



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abenduaren 20a

146. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00148. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita landa-eremurako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarroan 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriei zuzendua. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00149. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Mercosur eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askearen akordioa. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/POR-00385. Galdera, jakiteko ea zertan den EnergyLoop enpresaren proiektua. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (6. or.).
- 11-2/POR-00386. Galdera, Volvorekin 2023ko urriaren 12an sinatutako akordioaren kopia emateari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00387. Galdera, Neguko Bidezaintza Planari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00517. Galdera, Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00518. Galdera, Next Generation Europako funtsek Nafarroako BPGan duten inpaktuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00519. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuaren gisakoak ekiditeko neurrii buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00520. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuari buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00521. Galdera, SAREBek Nafarroan dauzkan etxebizitza hutsei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (11. or.).

- 11-24/PES-00522. Galdera, alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatze aldera Nafarroako Gobernuak eratu nahi duen enpresa mistoari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00523. Galdera, zaugarritasun-egoeran dauden familiei bertan behera utzitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00524. Galdera, Leitzako lehengo egoitzaren eraikinari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00525. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakidak berri-tzeko laguntza teknikoaren lizitazioari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00526. Galdera, C.A. Osasunari lurzatiak saltzeari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00527. Galdera, Nafarroako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00528. Galdera, NA-134 errepidean ehiza-espezieekin izandako istripuei buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00529. Galdera, 2023ko unibertsitate-beken deialdian eskabide-kopurua jaitسي izanari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00530. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidea-ren 2. fasearen finantzaketaren kudeaketarako egindako bileretako parte-hartzaile bati buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (19. or.).
- 11-24/PES-00531. Galdera, jakiteko ea noiz aurreikusten den sinatuko dela Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko. Cristina López Mañero andreak egin du (20. or.).
- 11-24/PES-00532. Galdera, jakiteko ea zer azterlanetan oinarritzen den lehendakaria Nafarroako enpresen fiskalitateari buruz adierazi duena adierazteko. Ana Elizalde Urmeneta andreak egin du (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/CCNG-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita erakundearen Erregistro Orokorrak 2025ean izanen duen ordutegi ofiziala (22. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00148. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia- tzen baita landa-eremurako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafa- rroan 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriei zuzendua

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita landa-eremurako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarroan 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerriei zuzendua.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuak ahaleginak areagotu behar ditu, etxebizitza duin eta ordainerraz baterako eskubide subjektiboa bermatzeko Nafarroa osoan.

Nafarroako Gobernuak lehendakariorde Begoña Alfaro Garciak 2024ko azaroaren 4an iragarri zuen abian zela 21 udalerrri, Nafarroako biztanleria osoaren % 68 hartzen dutenak, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaratzeko prozesua. Albiste ona da hori, herri horietan plan bera-

riazkoak taxutzen ahalko baitira, etxebizitzaren prezioen tentsioa murrizteko neurri-sorta bat hartuta.

Alabaina, Nafarroako Gobernuak bazter utzi ditu 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrri guztiak; haren esanetan, "erosketa- edo alokairu-prezioei buruzko datuak ez dira adierazgarriak 5.000 biztanle baino gutxiago dauzkaten udalerrietan"; hortaz, oraingoz, automatikoki baztertzen da etxebizitza-merkatuan esku hartzea Nafarroako udalerrietako % 92 baino gehiagotan, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonalde deklaraturata.

Egia da kontseilariak adierazi duela Gobernuak neurri zehatzak hartzeko prest dagoela hala eskatzen duten udal guztietarako, baina arazoari ikuspegi integral batekin ekin beharra dago, lurraldeko kohesioaren ikuspegiarekin, neurriak hartzea eskatzen duten udalek eskatuta jarduteaz harago.

Izan ere, etxebizitzaren arazoa ez da soilik herririk handienetan gertatzen. Landa-eremuan ere ezin da bermatu etxebizitza duin eta ordainerraz baterako eskubide subjektiboa, eta horrek larriagoa egiten du herri eta eremu askok bizi duten despobulatze-egoera. Kasu horietan, arazoa neurri handi batean da etxebizitza huts asko dagoela, edo noizbehinka baizik erabiltzen ez direnak, edo ez daudela eskuragarri, ez daudela bizitzen jartzeko moduan, edo eskuratzeko baldintzak herritar gehienek ahalmenetik at daudela.

Hutsik dauden etxebizitzak detektatzeko eta, hartara, etxebizitza-merkatuan jartzea ahalbidetuko duten neurriak ezarri ahal izateko, hutsik dauden etxebizitzaren errolda oso garrantzitsua da. Halere, Nafarroako Gobernuak hutsik dauden etxebizitzak detektatzeko bi fase baizik ez ditu egin; azkena, 2020an, orain dela ia bost urte.

Landa-ingurunean, halaber, ezinbestekoa da alokairuko etxebizitza zaharberritzeko eta sustatzeko politika publikoa. Izan ere, udalen eta Nasu-

vinsaren artean sinatutako hainbat hitzarmen dago alokairuko parkera atera ahal izateko dozenaka etxebizitza. Hitzarmen horietako gehienak, ordea, ez atzera ez aurrera daude egun.

Premiazkoa da neurri zehatz eta efizienteak bul-tzatzea etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko landa-ingurunean eta, halatan, eremu horiek pairatzen duten despulatzeari aurre egiteko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Lehenengoa: Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premiatzen du landa-ingurunerako etxebizitza plan bat taxutu dezan, Nafarroako 5.000 biztanletik beheetik udalerri zuzendua, 2025eko ekainaren 30a baino lehen.

Bigarrena: Nafarroako Parlamentuak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua premiatzen du Nafarroako 5.000 biztanletik beheetik udalerrietan hutsik dauden etxebizitzak detektatzeko beste fase bagt egin dezan eta, hartara, hutsik dauden etxebizitzaren errolda gaurkotu dadin 2025eko ekainaren 30a baino lehen.

Hirugarrena: Nafarroako Parlamentuak Nasu-vinsa premiatzen du udalekin sinatu eta gaur egun ez atzera ez aurrera dauden hitzarmenak izapidetu ditzan eta hitzarmen horietan aurreikusitako sustapenak 2025eko abenduaren 31 baino lehen bete ditzan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/MOC-00149. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Mercosur eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askearen akordioa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Mercosur eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askearen akordioa.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Par-

lamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean albait lasterren eztabaidatzeko:

Mozio hau betetzeari buruzko jarraipena Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean egin dadila eskatzen dugu.

Zioen azalpena

Alde handia dago elikagaiak Europar Batasunean eta munduko gainontzeko herrialdeetan nola ekoizten diren. Ezberdintasun horiek, tradizionalki, merkataritza askeari jarritako oztopo modura hartu dituzte gure merkataritza-bazkideetako batzuek, inportatutako elikagaiekiko legezko betekizun bihurtu direnean. Halere, kontsumitzaileei begira beti ekarri dituzte berme handiagoak ingurumenarekiko ekoizpen begirunetsuari, animalien ongizateari eta elikadura-segurtasunari begira, nahiz eta ekoizpen-kostua handiagoa den elikagai-ekoizpeneko beste eredu malguago batzuetan baino.

Historikoki, Europako ekoizleak Europako araudi zorrotzarekin ados egon dira, zeren, elikadura-subiranotasunerako eskubidea daukagulako erakusgarria izateaz gain, munduko beste ekoizpen-modu batzuekiko aldea erakusten baitzuen, eta horrek, zeharka, Europar ekoiztutako elika-

gaiekiko errekonozimendua bermatzen zuen. Merkatuen egungo desarautze gorenak eta merkataritza-irekitze etengabeak, ordea, berekin ekarri dute prezioaren, errekonozimenduaren eta araudiaren arteko oreka hauskorra desagertu izana.

Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) urteak daramatza akordio multilateral handi bat sina dadin saiatzen, elikadura-subiranotasunaren arloko nazioarteko exijentziak murrizten laguntzeko (merkataritzari jarritako oztopo teknikoak deritzenak). Akordio multilateral handi hori bilatzen den bitartean, Munduko Merkataritza Antolakundeko herrialde guztien konpromisoa da "erregulazio-kooperazioa" deritzon horretan lan egitea (merkataritzari jarritako oztopoak eta muga-zergazkoak ez diren oztopoak murriztera bideratutako arauak onestea, administrazio-kostuak murrizteko, prozesu logistikoak sinplifikatzeko eta erregulazioak hurbiltzeko –teorian–).

Munduko herrialderik aberatsenek urteak daramatzate jorratzen, MMAren negoziazioak egiten direnaldi berean, merkataritza askeko alde-biko tratatuak, erregulazio-lankidetzeta eta merkataritza askea behartzen dutenak bi herrialderen edo bi herrialde-talderen artean. Hartara, gardenak eta demokratikoak ez diren negoziazio-metodoen bidez, estatuak zenbait kontutan amore ematea lortzen dute.

Negoizazio eta akordio mota horren arazoa da urteak daramatzatela Europako ekoizpen-ereduari kalte egiten –eta, hortaz, gure elikadura-subiranotasunari–, zeren erregulazio-lankidetzeta beti lausotzen ditu exijentziak, enpresa eta kapital handien interesen mesedetan (horiek dira akordio-mota hori bultzatu eta hortik etekina egiaz ateratzen dutenak). Adibidez, TTIP oneste aldera Europar Batasunak eta Estatu Batuek izandako negoziazioen ondorioz (ez ziren sekula burutu), 2013an baimendu egin zen Europar Batasunean azido laktikoa erabiltzea hausnarkarien kanalak higienizatzeke –lehen behetu zen hori egitea–, eta orain Europako harakintza-industriak higienizatzaile hori erabiltzen du kontsumitzaileek horretaz jabetu gabe.

Europar Batasuneko enpresek inportatutako elikagai gehienak askoz ere merkeagoak dira gaur egun Espainiak ekoiztitakoak baino, zeren Europar Batasunak eta gure gobernuak gure nekazari- eta abeltzainei ekoizpen-arau zorrotzak ezartzen dizkieten bitartean erraztu egiten baitute elikadura-segurtasuneko, animalien ongizateko, ingurumen-inpaktuko edo lan-baldintzetako estandar malguagoekin ekoiztitako elikagaiak sartzea

gurean. Inportazioen sarrera-prezioek urteak daramatzate presioa egiten gure ekoizleei ordaindutako prezioak jaits daitezzen; izan ere, elikagaien enpresek kanpoan erosten dute hemen ordaindu nahi ez dutena. Gainera, ustiatzearen diru-sarreraren zatirik handiena egiten du ekoizleek jasotzen duten prezioak.

Hori guztia ikusita (ekoizpen-ereduaren aldaketa, ustiatze txiki eta ertainen errentagarritasun eza, nekazaritzako elikagaien mundu-merkatuaren liberalizazioa), ezinezkoa da ekitate-baldintzetan lehiatzea.

Gauzak horrela, Europar Batasuna eta Mercosur hogeitau urte baino gehiago negoziatzen egon eta gero, Nafarroako, Espainiako nahiz Europako nekazari- eta abeltzainei gogor iharduki dioten akordioa hel liteke. Mercosur-en eta EBren arteko merkataritza askeko tratatuak berekin ekarriko luke muga-zergak deuseztatzea; izan ere, Mercosur-ek bere inportazioen % 91 liberalizatuko ditu (muga-zergen lerroen % 91), eta EBk, berriz, bere inportazioen % 92 (muga-zergen lerroen % 95). Muga-zergen deuseztatze horrek eragina izanen luke nekazaritza- eta abeltzaintza- sektorean (ibilgailuak, ekipamendu-ondasunak, produktu kimikoak, farmazia, ehungintza edo zapatagintza) nahiz zerbitzuen sektorean (finantzarioak, telekomunikazioak eta itsas garraioa). Trumpen garaipenarekin Estatu Batuek protekzionismora joko dutela eta Txinak Hego Amerikan duen presentzia areagotuko duela ikusita, EBk Mercosur-ekiko merkataritza askeko tratatuzarra ezarri nahi du, zaldien hankapean jarriko duena Europako nekazaritza- eta abeltzaintza- sektorea (eta, hortaz, Nafarroakoa); zehazki, gizarte- eta familia-eredua. Hori horrela da merkataritza askeko tratatuek ezartzen dituzten joko-arauek soilik egiten diotelako mesede multinazionalen eta inbertsio-funtzen esku dagoen nekazaritza-industriari, lurraldeari atxikitako nekazaritzaren kaltetan, nekazari profesionalek osatua.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari premiaz du Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko merkataritza askeko tratatua geldiaraz dezan eta ez dezan amore eman nekazaritzaren esparruan ezertan ere gehiago.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

F saila:
GALDERAK

11-24/POR-00385. Galdera, jakiteko ea zertan den EnergyLoop enpresaren proiektua

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, jakiteko ea zertan den EnergyLoop enpresaren proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabideetan azaldu da Cortesen dagoen EnergyLoop enpresari esleitu zaiola Albaceteko bi parke eolikoren osagaien birziklatzea (proiektua foru-erkidegoaren interesekoa dela deklaratu da). Hori dela-eta,

Zer fasetan da EnergyLoop enpresaren proiektua?

Iruñean, 2024ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-2/POR-00386. Galdera, Volvorekin 2023ko urriaren 12an sinatutako akordioaren kopia emateari buruzkoa

MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Volvorekin 2023ko urriaren 12an sinatutako akordioaren kopia emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Behin emanda Eledunen Batzarraren eskariz emandako txostena, 2024ko urriaren 28koa, argitze aldera ea Nafarroako Gobernuak emandako erantzunak errespetatzen duen Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jasotzen den informazio-eskubidea, eta dakartzan konklusioak ikusirik:

Nafarroako Gobernuak akordioa sinatu zuen 2023ko urriaren 12an Volvorekin, Sunsundeguiria eramateko 9900 eta 9700 eredu ibilgailuen eta etorkizuneko eredu elektrikoen karrozeriaren fabrikazioa. Zeren zain dago Nafarroako Gobernu parlamentari honi akordio haren kopia emateko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

11-24/POR-00387. Galdera, Neguko Bidezaintza Planari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Neguko Bidezaintza Planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramen-

diak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Errepideak zaintzearen arloan, "neguko bidezaintza" esaten zaio gertakari meteorologiko jakin batzuek errepideetan dauzkaten ondorioak prebenitu, ekidin eta minimizatzea bideratutako jarduketak; gertakari horiek edozein urtarotan gerta badaitezke ere, tenperatura baxuei lotuta daude, neguko hilabeteetan gertatzen dira batez ere (gurean, azarotik apirilera bitarte) eta, gainera, zeharo eragozten dute errepide horietatik ibiltzen diren ibilgailuen zirkulazioa: elurra, izotza, kazkabarra, euria, lainoa, haizea eta abar.

Funtsezkoa da neguko bidezaintzako jarduketak behar bezala egiteko irizpideak, antolaketa,

koordinazioa eta prozedurak ezartzea, are gehiago egungo krisialdi klimatikoaren testuinguruan, non muturreko gertakari meteorologikoak gero eta sarriago gertatzen diren.

Nola ari da garatzen indarrean dagoen Neguko Bidezaintza Plana?

Iruñean, 2024ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00517. Galdera, Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Departamentuek kudeatutako 150 jarduketa aipatzen dira Europako SEM funtsen urriko datuak gaurkotzeari buruz Nafarroako Gobernuak azaroaren 28an argitaratu zuen prentsa-oharrean.

1. Jarduketa horiek zehazten diren Excel fitxategian sartzean, 127 jarduketa ageri dira "Consulta subproyectos/actuaciones general" fitxan. Falta diren jarduketak zergatik ez dira agertzen?

2. "Consulta subproyectos/actuaciones por departamentos y componentes" fitxan 153 jarduketako zerrenda ageri da, baina ez da esaten zer epe aurreikusten den betebeharrak aitortzeko. Zergatik?

3. ID053, ID124, ID135, ID136, ID139, ID141, ID143, ID144, ID147, ID150, ID152 eta ID153 jarduketak oraindik ere "egiteke" moduan agertzen dira. Horietako bakoitzari buruz jakin nahi dut: Zergatik ageri dira horrela? Noiz uste duzue ezarriko dela horiek egiteko epea?

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00518. Galdera, Next Generation Europako funtsek Nafarroako BPGan duten inpaktuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Next Generation Europako funtsek Nafarroako BPGan duten inpaktuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil Europako Next Generation funtsek Nafarroaren BPGan 2021, 2022, 2023, 2024, 2025 eta 2026an izan dezaketen inpaktua dela-eta?

2. Funts horiek zer inpaktu erreal izan dute Nafarroaren BPGan 2021, 2022 eta 2023an?

3. Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen zerabilen Europako Next Generation funtsek muntako beste aldagai ekonomikotan izan beharreko inpaktuari dagokionez?

4. Funts horiek zer inpaktu erreal izan dute aldagai horietan 2021, 2022 eta 2023an?

5. Funts horiek zer diru-mobilizazio izan dute Nafarroaren ekonomia errealean 2021, 2022 eta 2023an?

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-24/PES-00519. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuaren gisakoak ekiditeko neurriei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuaren gisakoak ekiditeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Tuterako La Atalaya zentroan gainbegiratu gabeko moduluan zegoen pertsona bat hil zen azaroaren 29an izandako istripuan. Hori dela-eta,

Zer neurri hartuko du Nafarroako Gobernuak halakorik berriz gerta ez dadin?

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-24/PES-00520. Galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, Tuterako La Atalaya zentroan izandako istripuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Abenduaren 5ean, prentsaren bidez jakin dugu Tuterako La Atalaya zentroko egoiliar bat hil egin dela.

Egoera larri hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

- Heriotzaren inguruabarrei buruzko txostena.
- Zentroan heriotzaren unean zegoen zaintzaile-ratioa (bereziki, heriotza gertatu zen moduluan).
- Enpresa esleipen-hartzaileak bete beharreko baldintzak, prestakuntza-jarduerak egiten, oportunitate nahiz bajaran dauden langileak ordeztari dago-kionez.
- Zentroan 2024an egindako azken ikuskapenari buruzko txostena.

Iruñean, 2024ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

11-24/PES-00521. Galdera, SAREBek Nafarroan dauzkan etxebizitza hutsei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, SAREBek Nafarroan dauzkan etxebizitza hutsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Prentsan argitaratutako albiste baten arabera, hutsik daude SAREB-Bankuen Berregituratetik Heldutako Aktiboak Kudeatzeko Sozietatearen kontrolpean dauden etxebizitzak % 43. Hau da, merkatuan jar litezkeen etxebizitzak dira, baina halere hutsik daude.

SAREBen datuen arabera, Nafarroan 61 etxebizitza dauzka, baina 9 soilik daude okupatuta (% 15), eta 52, berriz, hutsik (% 85).

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer zuzemen egin du hutsik dauden SAREBen etxebizitzak merkatuan jarri ahal izan daitezen?

– Zer udalerritan daude etxebizitza horiek eta zer egoeratan daude bertan bizi ahal izateko?

– Etxebizitza horiek Nasuvinsaren Alokairu Poltsa programan sartzeko aukera aztertu al da?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00522. Galdera, alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatze aldera Nafarroako Gobernuak eratu nahi duen enpresa mistoari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatze aldera Nafarroako Gobernuak eratu nahi duen enpresa mistoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Aurtengo apirilean, Begoña Alfaro kontseilariak iragarri zuen sozietate publiko-pribatu berri bat sortuko zela, kapital mistoko enpresa bat, Nafarroako Foru Komunitatean alokairu eskuragarriko etxebizitzak sustatzeko.

Abuztuan, parlamentari naizen aldetik honako galdera idatzi hau aurkeztu nion Etxebizitzako, Gaz-

teriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari: Zein egoeratan dago sozietate publiko-pribatu hori sortzeko prozesua eta zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak horri buruz, denborari eta prozedurari dagokionez? Departamentuak honako hau zioen erregistroan irailaren azken egunetan sartu zen erantzunean:

"Nasuvinsa eta NEKP batera ari dira lanean bazkide pribatu bat hautatzearekin lotutako askotariko alderdiak aztertu eta zehazteko, alokairuko etxebizitza babestua eraikiko eta kudeatuko duen enpresa misto bat sortzeko. Prozesu horren barnean daude sektore pribatuarekin aldeztu aurretik informazioa trukatzeko ekintzak, bai eskualde mailan bai maila nazionalen. Ildo horretatik, jakinarazten da gaur egun aurretiazko plangintzako prozesu batean gaudela, eta aukera emanen duela epe laburrean lortu nahi den helburua garatzen eta betetzen dela bermatzeko".

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Zertan da departamentuak aipatzen duen aurretiazko plangintza?

– Zertan aurreratu da irailaren amaiera aldetik gaur arte Nafarroan alokairuko etxebizitza babestua eraiki eta kudeatzeko enpresa misto bat eratzeko helburua lortzeari dagokionez?

– Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil gogoan denbora- nahiz prozedura-garapenari dagokionez?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00523. Galdera, zaurgarritasun-egoeran dauden familiei bertan behera utzitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, zaurgarritasun-egoeran dauden familiei bertan behera utzitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

8/2023 Errege Lege-dekretuaren bidez, etxegabetze- eta irtete-prozeduren etetea luzatzea erabaki zen 11/2020 Errege Lege-dekretuan ezartzen den etxebizitza-aukerarik gabeko familia zaurgarrientzat. Hartara, araudiak jada aurreikusitako kasuetan, 2024ko abenduaren 31ra bitarte luzatu zen familia ekonomikoki eta sozialki zaurgarrien etxegabetzeak eta irteteak bertan behera uzteko aldia.

Hortaz, arau horren arabera errentariak ezin izanen dira etxegabetu baldin eta ahozko epaiketa errentariak zor dituen zenbatekoei edo errenta-errekamazioei buruzkoa bada, edo Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen arabera sinatutako kontratuen iraupen-epearen iraungitzeari buruzkoa, finkaren jabetza berreskuratzea bilatzen dutena, lege horren 441. artikulua 5. apartatua ezarritako moduan prozesua alde aurretik eten bada nahiz eten ez bada.

Kasu horietan, errentariak epaitegian eskatzen ahalko du, artikulua horretan ezarritakoarekin bat, etxegabetzea edo irtetea eteteko intzidente berezia, berarentzat eta berarekin bizi direnentzat etxebizitza-aukera bat aurkitzea eragozten dion zaurgarritasun ekonomikoan egoteagatik.

Halaber, irteteko eguna jarri gabe egonen balitz, 440.3 artikuluan ezartzen den hamar eguneko epea igaro ez delako edo ikustaldia egin ez delako, bertan behera geldituko dira epe hori edo ikustaldia.

Epe hori laster bukatzeaz dagoenez gero, honako galdera idatzi hauek egin nahi ditut:

– Etxebizitza-aukerarik gabeko zenbat familia zaurgarri aplikatzen ari zaie Nafarroan etxegabetze-prozeduren etetea, errege lege-dekretu horretan oinarrituta?

– Nafarroako Gobernuak babes sozialeko neurriren bat aurreikusten al du familia horientzat 2025eko urtarrilaren 1etik aitzina?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00524. Galdera, Leitzako lehengo egoitzaren eraikinari buruzkoa*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Leitzako lehengo egoitzaren eraikinari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernua da Leitzako Amazabal institutuaren barrutian dagoen lehengo egoitzaren jabea. Higiezin hori (katastroko erreferentzia: 310000000001830895IY), zeina 56. lurzatiko 1. azpilurzatiko 2. poligonoan baitago, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikia dago.

Eraikina ez da aspaldi-aspaldian erabiltzen, eta une honetan erdi hondaturik dago.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Eraikinaren, haren egituraren edo hango elementuren baten azterlan edo azterketarik egin al du Departamentuak azken urteotan? Hala baldin bada, orain nola dago egoitza izandakoaren eraikina?

– Zein izan da eraikin horretan egindako azken esku-hartzea?

– Departamentuak ba al du eraikin horretan beste esku-hartzeren bat egiteko asmorik?

– Zer asmo darabil gogoan Departamentuak eraikin horren erabilerari dagokionez?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00525. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakidak berritzeko laguntza teknikoaren lizitazioari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakidak berritzeko laguntza teknikoaren lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Lurralde Kohesiorako kontseilariak honako hau adierazi zuen 2024ko urriaren 29an, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruz foru parlamentari naizen honek egindako galderari erantzunez (11-24/PES-00414):

"4 emakida daude lizitatzeke oraindik:

Pamplona/Iruña-Irun, Baztan-Bidasoa aldea; Pamplona/Iruña-Pirinio aldea; Pamplona/Iruña-Estella/Lizarra-Logroño Donostia/San Sebastián, Estellerría eta Goi Erribera; eta Pamplona/Iruña-Donostia/San Sebastián, Ipar-mendebaldea.

Pamplona/Iruña-Irun, Baztan-Bidasoa aldea emakidak badu ustiapen-proiektua eta proiektu ekonomikoa. Eranskinak bukatzeko lanetan ari dira.

Gainontzeko hiru emakidei dagokienez (Pamplona/Iruña-Pirinio aldea; Pamplona/Iruña-Estella/Lizarra-Logroño Donostia/San Sebastián, Estellerría eta Goi Erribera; eta Pamplona/Iruña-Donostia/San Sebastián, Ipar-mendebaldea), kanpoko laguntza teknikoa lizitatuko da, aurretiaz hori egin behar baita emakida horiek lizitatu ahal izateko".

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Zertan da kanpoko laguntza teknikoaren lizitazioa, gainontzeko hiru emakidak lizitatu ahal izateko alde zuretik egin behar dena?

– Departamentuak zer epe darabil gogoan hiru emakida horietako bakoitza berritzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00526. Galdera, C.A. Osasunari lurzatiak saltzeari buruzkoa*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, C.A. Osasunari lurzatiak saltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuak, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak azaroaren 27an iragarri zuen Club Atlético Osasunari Taxoareko 28.244,04 metro koadroko lurzati bat 4.002.312,38 eurotan saltzea erabaki zuela.

Operazioa salmenta zuzenaren prozedura bidez egingen da. Baldintza ekonomikoei dagokienez, erosleak lau epetan egingen du ordainketa: 1.000.578,095 euro sinatzen den unean eta beste hiru ordainketa gero, zenbateko berekoak, 2025eko, 2026ko eta 2027ko ekainaren 30ean.

Saltzen den lurzati Nafarroako Gobernuarena da 2015eko ekainaren 16az geroztik; izan ere, Gobernuak egun horretan bost lurzati erosi zituen, C. A. Osasunak ordainean emandakoak eta harrezkero Osasunak errentari gisa erabili dituenak. Gogorazi beharra dago 2022an baimendu zela Taxoareko instalazioetan eraiki gabeko 169.000 metro koadroko lurzati bat saltzea 6,5 milioi euroko prezioan.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Nafarroako Gobernuak zertarako baliatuko du azaroaren 27an iragarri zen salmentatik heldu den diru hori?

– Zertarako baliatu dira 2022an Taxoaren C. A. Osasunari saltzea baimendu zen lursailaren salmentan lortutako 6,5 milioi haiek?

– Diru hori –osorik nahiz hein batean– kirol azpiegiturarako baliatzeko konpromisorik edo asmorik ba al da?

– Nafarroako Gobernuak jabetzan al dauka C. A. Osasunak 2015ean ordainean eman eta oraindik hari saltzea erabaki ez den lursail edo lurzatiirik?

– C. A. Osasunak zenbat diru zor zion guztira Nafarroako Gobernuak Ogasunari 2015eko ordainean emate hura adostu zenean?

– C. A. Osasunak zenbat diru ordainduko dio Nafarroako Gobernuari 2015etik adostutako lursail salmenta-operazio guztien truke?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00527. Galdera, Nafarroako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Nafarroako ikus-entzunezko edukiak biltzeko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2024ko otsailean, galdera idatzi bat egin nion Nafarroako Gobernuari, jakiteko ea zertan zen Nafarroarako ikus-entzunezkoen edukiak batzeko plataformaren proiektua (11-24/PES-00092).

Nafarroako Gobernuak erantzun zuen ezen "lizitazio publikoa izan ostean, 2023an Flumotion Services SA enpresak agregatzailearen proiektua idatzi zuela, eta Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren Zuzendaritza Nagusiari entregatu ziola abenduan".

Geroago, 11-24/PEI-00283 zenbakiko informazio-eskariaren bidez, Flumotion Services SA enpresak idatzitako proiektua eskatu nuen, eta

dokumentu hori 2024ko apirilaren 2an igorri zitzaidan.

2024ko apirilaren 25ean, ahozko galdera bat egin nion Nafarroako Parlamentuaren kontroleko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Lehendakari eta Berdintararen Departamentuko kontseilari Félix Taberna Monzóni, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer urrats egin behar zuen Nafarroarako ikus-entzunezkoen edukiak batzeko plataformaren proiektua garatzeko. Osoko Bilkura hartan, Taberna lehendakariordeak esan zuen Gobernuak proiektua garatzen jarraitzeko asmoa duela.

Berrikitan, 2024ko azaroaren 25ean hain zuzen ere, artikulua bat argitaratu da prentsan, zeinean esaten baita "Geroa Baik eta Contigo-Zurekin defenditzen jarraitzen duten ikus-entzunezko edukiaren agregatzaileak gobernu-kanpainarako bideo-plataforma bat izanen dela oraingoz".

Hori guztia ikusita, honako hau jakin nahi dut:

– Zer aurrerabide egin da apiriletik orain arte Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak batzeko proiektuan?

– Zertan da proiektua gaur egun?

– Nafarroako Gobernuak zer asmo eta aurreikuspen darabil proiektu horri dagokionez?

– Nafarroako Ikus-entzunezko Klusterrarekin harremanik izan al da azken hilabeteotan Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak batzeko proiektuaz informatzeko edo proiektu hori jorratzeko?

– Akordiorik edo hitzarmenik egin al da Navarra TVrekin proiektu hori, hein batean baino ez bada ere, garatzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

11-24/PES-00528. Galdera, NA-134 errepidean ehiza-espezieekin izandako istripuei buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, NA-134 errepidean ehiza-espezieekin izandako istripuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

NA-134 errepidean (Arguedasko zuzengunean) ehiza-espezieekin –zehazki, basurdeekin– izandako istripu-kopurua ikusita, Nafarroako Gobernua zer neurri hartzen ari da errepide horretako nahiz espezie horiekiko istripu ugari daukaten Nafarroako beste errepide batzuetako istripu-kopurua minimizatzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

11-24/PES-00529. Galdera, 2023ko unibertsitate-beken deialdian eskabide-kopurua jaitsi izanari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, 2023ko unibertsitate-beken deialdian eskabide-kopurua jaitsi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Departamentuaren ustez, 2023ko unibertsitate-beken deialdirako zer dela-eta aurkeztu dira batez beste aurreko urteetako 500-600 eskabide gutxiago?

Zehazki, zenbat eskabide jaso ziren 2015etik 2022ra bitarteko deialdietan? Erantzuna urtez urte ematea nahi dut.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00530. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketaren kudeaketarako egindako bileretako parte-hartzaile bati buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europako Inbertsio Bankuak Nafarroako Ubidearen 2. fasearen finantzaketaren kudeaketarako egindako bileretako parte-hartzaile bati buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00460 galderari emandako erantzuna ikusita (hau izan zen galdera: Zenbat bilera egin ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatze aldera Europako Inbertsio Bankuarekin? Adierazi bilera horiek zer egunetan eta non egin ziren). Zein da bilertan parte hartu zutenen izena?

Horietako hirutan –zehazki, bideokonferentziaz egindakoetan– Hoses Oriol Bellot da pertsona horietako bat. Noren izenean egon zen bilertan eta zer dela-eta egon zen bilertan?

Iruñean, 2024ko abenduaren 10ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00531. Galdera, jakiteko ea noiz aurreikusten den sinatuko dela Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea noiz aurreikusten den sinatuko dela Etxebizitza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentro Nazionala (BAI) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Noiz aurreikusten duzue sinatuko dela Etxebizitza eta Hiri Agendako Ministerioaren –Hiri Agendaren eta Arkitekturaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez– eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena, Building & Architecture Institute (BAI/eraikuntzari eta arkitekturari aplikatutako industrializazioaren eta digitalizazioaren zentro nazionala) sortzera bideratutako dirulaguntza taxutzeko?

Iruñean, 2024ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00532. Galdera, jakiteko ea zer azterlanetan oinarritzen den lehendakaria Nafarroako enpresen fiskalitateari buruz adierazi duena adierazteko

ANA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, jakiteko ea zer azterlanetan oinarritzen den lehendakaria Nafarroako enpresen fiskalitateari buruz adierazi duena adierazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko abenduaren 10ean, Nafarroako Ganberaren urteko sariak banatzeko ekitaldian, Chivite lehendakariak adierazpen batzuk egin zituen; besteak beste, honako hau adierazi zuen: "ia sei enpresatik bostek, gainontzeko erkidegoetan baino zerga gutxiago ordaintzen dute Nafarroan".

Zer azterlanetan oinarritzen dira Nafarroako enpresen fiskalitateari buruzko baieztapen horiek?

Iruñean, 2013ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCNG-00002. Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez ezartzen baita erakundearen Erregistro Orokorrak 2025ean izanen duen ordutegi ofiziala

Kontuen Ganberako langileek 2025ean izanen duten lan-egutegia onetsi baita, Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2025erako ordutegi ofiziala zehaztu beharra dago, erakunde honen bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazio ofiziala jasotzearen ondorioetarako.

Nire eskumenak baliatuta, lehendakaria naizen aldetik

EBATZI DUT:

Lehena. Xedatzea ezen Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2025erako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkezteko, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera. Halaber, gogorarazi nahi dut erakunde honek Erregistro Orokor Elektronikoa ere baduela Egoitza Elektronikoa, zeinetara webgunearen bidez sar baitaiteke.

Bigarrena. Xedatzea ezen dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbat, igande nahiz Nafarroako Foru Komunitaterako oro har ezarritako jaiegunetan, bai eta maiatzaren 2an, uztailaren 7, 8, 9, 10, 11 eta 14an (lanekoak ez diren egunak, Sanferminak direla-eta) eta abenduaren 24, 26 eta 31n ere, egun horiek balio-gabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Erabaki honen berri Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei ematea, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin, jende guztiak horren berri izan dezan.

Iruñean, 2024ko abenduaren 12an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

